

## **EGONALDIAREN LUZAPENERAKO PROZEDURA**

**Egonaldia luzatzeko eskaera:** helburuko unibertsitatean ikasketa egonaldia hasi ondoren egin beharko da.

Eskaera bat baina gehiago balego eta plaza libreak ez balira nahikoak izango eskaera guztiak betetzeko, plaza esleitzerako orduan erabilitako batez besteko altuena duten ikasleek lehentasuna izango dute.

- **Erasmus+ plazak:** egonaldia luzatzeko eskaerak soilik onartu ahal izango dira indarrean dagoen hitzarmenean plaza libreak baleude.
- **Latinamerika eta Beste Norakoko plazak:** Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegoaren (NHB) onespenearekin soilik onartu ahal izango dira egonaldia luzatzeko eskaerak.

### **Eskaera egiteko prozedura:**

Gure bulegora idatzi [nazioartekoak.letrak@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.letrak@ehu.eus) eta helburuko unibertsitatean ikasketa egonaldiaren luzapena eskatu.

Egoera posibleak:

- a) **Ez dago plazarik libre** helburuko unibertsitateko **hitzarmenean**: eskaera ez da onartuko eta ez da inola ere baimenduko ikasketa egonaldia luzatzea
- b) Helburuko unibertsitateko **hitzarmenean plazak libre** baleude: dekanordeak ikasketa egonaldiaren luzapen eskaerari onospena eman ahal izango dio, hurrengo hiru baldintzak **beranduenez azaroaren 15erako** betetzen badira:
  1. Ikasleak "Egonaldiaren Luzapenerako Formularioa" helburuko unibertsitategatik sinaturik eta zigilaturik gure helbidera igorri beharko digu: [nazioartekoak.letrak@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.letrak@ehu.eus).
  2. Ikasleak egonaldia luzatuko duen denbora guztirako istripu/osasun babesa eskaintzen dion aseguruak kontratatuko du eta horren kopia gure helbidera bidaliko du: [nazioartekoak.letrak@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.letrak@ehu.eus). **Oharra:** ikasleak izapide

hau egin ez balu, unibertsitatea denboraldi horretan gerta litezkeen edozein gertakariren erantzukizunetik guztiz salbuetsita egongo da.

3. Ikasleak Konpromiso Akademikoa aldatu beharko du ikasturte osorako irakasgaiak sartuz. Horretarako, "Konpromiso Akademikoan aldaketak egiteko dokumentua" bete eta gure helbidera [nazioartekoak.lettrak@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.lettrak@ehu.eus) bidali beharko du. Letren Fakultateko dekanordearen onespentak aintzatespen akademikoa bermatuko du.

Latinoamerika edo Beste Norakoak programetan bereziki dauden ikasleek luzapena egin nahi badute arreta berezia izan beharko dute harrera-herrialdean legezko egonaldia izateko behar dituzten agiri eta baimenak eguneratzeko orduan. Horretarako harremanetan jarriko dira dagokion unibertsitate zerbitzuarekin edo zuzenean hasierako baimena eman zieten agintariekin beharrezko prozedurak egikaritzeko harrera-herrialdean jarritako epeen barruan.

#### **DIRU-LAGUNTZAK:**

**Egonaldiaren luzapenak irauten duen denboran zehar ikasleak EZ du inolako diru-laguntzik jasoko. Aintzatespen akademikoa soilik lortuko du.**